

BERRI OROKORRAK

2018ko azaroaren 23an 11. zenbakia



Euskaraz Bizi!!!!

Hizkuntza-ohiturak aldatu nahi dituzue.

Soziolinguistikako klusterrak hizkuntza-ohiturak aldatu zituzten bikotekideekin eginiko ikerketarekin jarraituko dugu. Jarraian, aldaketa eman zuten bikotekideek izan zituzten zailtasunak aipatuko ditugu.

1- Zergatik aldatu edo zerk mugitu zituzten/ Motibazioak.

2-Zailtasunak.

3-Estrategiak.

4-Gakoak

2.4.- Arraro sentitzea

Badira hainbat une hizkuntza aldatuta arraro sentitzen zarena. Bikote batzuk deskribatzen dute izan dutela bolada bat non bazirudien bikotekidea beste pertsona bat zela.

2.5.- Deserosotasunak, bai bikotekideekin edo bai familiakoekin

Aldatu nahi izateak eskatu die bikote hauei zenbait egoera deserosotan eustea, aldaketarekin aurrera egiteko: bikote barruko rol banaketak aldatzea eta hori deserosoa izatea, ez dakien kidea bestearen familiara joan eta, ulertu ez arren, isilik egotea (besteei ez aldarazteko)...

2.6.- Zuzendu bai, baina... noraino?

Hitz egiten duzunean norbait ondoan zuzentzen egotea ondo dago baina... nekagarria ere bada! Tamaina bilatzen jakin behar da.

1.-Gorputzaldien saio praktiko bat gurasoekin.

LHko ikasleekin aurrera daramagun Gorputzaldiak proiektua zertan datzan erakusteko asmoz, ikastolako gurasoekin aurrera eramateko saio praktiko bat prestatu dugu, eta bertan edozein etapatako gurasok parte hartu ahal izango du.

Saioa **abenduaren 1ean**, larunbata, izango da **10:00etatik 12:00etara ikastolako jangelan**. Parte-hartzaile kopurua egokia izan dadin, 30 pertsonako muga jarri dugu eta aukeraketa izen-emate ordenaren arabera egingo da. Horretarako bi modu izango dituzue: gorputzaldiak@udarregi.eus postara idatziz edota ikastolako idazkaritzan 943361216 telefono zenbakira deituz. **Izena emateko azken eguna azaroaren 26a**, izango da. Interesa baduzue eta proiektua barrutik ezagutu nahi baduzue, animatu.

2.-Ikasle istripu-aseguruko oharra.

Quirón Ospitaleko barne-araudiaren aldaketa dela eta, hemendik aurrera, zuen seme-alabek eskolan izandako istripu baten ondorioz **urgentzietara** eraman beharko bazenute, **Gipuzkoa Poliklinikara joan beharko duzue**. Gainontzeko espezialitateak, lehen bezala, Quirón Ospitalean egongo dira. Dena den, joan aurretik mesedez ikastolan jakinarazi, istripua izan dela ziurtatzeko. Hala ez balitz izango, aseguruak ez da kargu egiten.

3.-Jangela-zerbitzuaren inguruko bilera.

Jangela-zerbitzuaren eskaintzaz, funtzionamenduaz, antolamenduaz eta menuez hitz egiteko bilera egingo da **abenduaren 4an**, astearte, arratsaldeko 17:00etan ikastolako jangelan.

4.-Jangelako erritmoa errespetatzea.

Zuen seme-alabek bazkaria era lasaiagoa eta osasuntsuago batean egin dezaten, bazkal ostean

dituzten ekintzetara joateko **13:20 baino lehen jangelatik atera behar ez izatea** gomendatzen dizuegu.

5.-Hitz-Aho guraso elkarteak antolatutako hitzaldiak,

Alazne Agirrezabalaga, dietista-nutrizionistak bi hitzaldi emango ditu azaroaren 27an eta 28an. Dituzuen **kontsulta edo zalantzak, aldez aurretik, alazneagirrezabalaga@gmail.com** helbide elektronikoan edo www.alaznedietista.com webguneko kontaktuan **egin** ditzakezue.

➤ **2 urtetik LH4ra** bitarteko seme/alabak dituzten familiei zuzenduta: **Gure seme-alaben elikaduraren inguruko zalantzak.**

NOIZ: azaroak 27, asteartea, arratsaldeko 17:00etan.

LEKUA: DBHko eraikinean.

➤ **LH 5eko, LH 6ko eta DBHko** gurasoei zuzenduta: **Gazteen elikadurak gurasoen esku egoteari uzten dion garaia, zer egin dezakegu euren etorkizuneko elikadura-ohiturak babesteko?**

NOIZ: azaroak 28, asteazkena, arratsaldeko 17:00etan.

LEKUA: DBHko eraikinean.

6.-Eguerdietan Agerialdeko patioaren erabilera.

Ikastolan bazkaltzen gelditzen diren ikasleen antolaketa eta zaintza egokia egite aldera, Agerialdeko patioa **13:00etatik 14:25era jangelan bazkaltzen dutenentzat libre uztea** eskatzen dizuegu.

7.-Erle eguneko I. familia-ekzutaketa topaketa.

Datorren igandeko Erle eguna girotu asmoz, Zirimarako hezitzaileek ezkutaketa jolasa antolatu dute parte hartu nahi duten herritar ororentzat. Topaketa horretan familiako edonork parte har dezake, familia plana da. Ondorengo oharrak lagungarri suertatuko zaizkizue:

- **Ezkutaketan taldeka jardungo dugu.** Talde bateko gutxieneko partaide kopurua, heldu bat eta haur bat. Hortik aurrera, edozein konbinazio onartuko da: 2 heldu eta haur bat, heldu bat eta 3 haur, 2 heldu eta bi haur, 5 heldu eta 8 haur...
- **Taldeak elkarrekin ezkutatu beharko du.** Taldea unitate moduan hartuko da, beraz, denek elkarrekin ibili behar dute.
- **Ezkutatzeko eremua mugatua izango da: Usurbilgo kaxkoa.** Ikus ezazue zein den ezkutatzeko eremua mapan eta has zaitezte ezkutalekuak pentsatzen.



- **11:30ean frontoian elkartuko gara.** Ezkutaketa jolasa nola izango den azalduko dugu.
- **Bi aldiz jolastuko dugu ezkutaketan.** 12:00tan lehenengo ezkutaketa saioari ekingo diogu eta 12:30etan bigarrenari.
- **Ezkutaketa jolasaren oinarrizko arauak:**
 1. Partaide guztiak taldeka ezkutatzera joango dira, beti ere, kaxkoan zehaztu dugun eremuaren barnean. Ezin da denda, taberna, etxeko atari... eta abarretan ezkutatu. Kalean

(aire librean) ezkutatu behar da.

2. Hiru hezitzaileko taldeak 3 minutu itxarongo du frontoian eta denbora tarte hori pasatzean, partaide-taldeak bila hasiko da.

3. Talde bat aurkitzen dutenean, talde hori frontoira gerturatuko da eta bertan dauden gainerako hezitzaileek aurpegian bi pintura-markatxo egingo dizkiete, "bilatzaile" bihurtuz.

4. Bi modutan amai daiteke ezkutaketa jolasa:

- talde guztiak aurkitzean
- denbora tarte bat pasatzean (lehenengo saioan, 12:30ean partaide guztiak frontoira gerturatu behar dute, aurkituak izan edo ez; bigarren saioan, 13:00etan frontoira gerturatu behar da)

• **Partaide guztion familia-argazkiarekin emango diogu amaiera Erle eguneko I. familia ezkutaketa topaketari.** Beraz, bi ezkutaketa saioak amaitu bezain laster, 13:10 inguruan, aterako dugu argazkia.

Anima zaitzte eta etorri guztiok ezkutaketa jolastera!!

8.-Erle eguna.

Azaroaren 25ean, igandea, Erle eguna ospatuko da eta antolatzen den lehiaketan parte hartzerantz animatu diren ikasleen marrazkiak Sutegin egongo dira ikusgai.

9.-Ikastolako kamisetak salgai.

Udarregi ikastolako kamisetak Haur Eskolako zein Ikastolako idazkaritzan daude salgai. Prezioa 6 eurokoa da.



10.-Xiberoko ikastolen aldeko otarrak salgai.

Xiberoko Ikastolek, Gabonetako otarrak eskaintzen dituzte, hurrengo hiru helburu nagusi hauekin:

1. **Ikastolaren finantzazioan laguntzea.** Seme-alabek euskaraz ikasteagatik, gurasoen finantzazioaren %30 jartzen dute eta administrazioek, %20. Gainerako %50, hau bezalako gizarte ekimenen bidez eskuratzen dute. Salmenta honekin %5 estaltzea espero dute; beraz, gure erosketa garrantzitsua da Xiberoko Ikastolentzat.
2. **Euskararen erabilera handitzea Xiberokoan eta bereziki ikastoletan :** pasa den urteko salmentari esker, lanpostu erdi bat ama-eskolako haurrei eskainia izan zaie, euskararen presentzia indartzeko geletan. Bestalde, euskal materialez ari dira osatzen liburutegia.
3. **Tokiko ekoizleak eta produktuak ezagutaraztea** Zuberoko etxalde eta enpresetako ekoizpenak dituzten otarrak eskainiz:

AHUZKI OTARRA (40€)

Ardi gazta zatia (450 gr)
Ahate gibela (125 gr)
Gurinezko gaileta paketea (150 gr)
Eztia (500 gr)
Euskal xerriki pateia (200 gr)
Euskal xerriki odolkia (200 gr)

IRATI OTARRA (52€)

Ardi gazta zatia (450 gr)
Ahate gibela (125 gr)
Gurinezko gaileta paketea (150 gr)
Eztia (500 gr)
Txahalki kontserba piperrekin, berotu eta arrozarekin edo patatekin jateko prest (640 gr)
Euskal xerriki lukainak (400 gr)

Zuk ere elkartasunez Xiberoko Ikastolak lagundu, gaur erein Euskararen aldeko haziak, bihar loratzen ikusteko.

Egin zure **eskaera abenduaren 10a baino lehen**, Udarregi ikastolarekin zuzenean kontaktuan sartuz elasarte@udarregi.eus.

11.-Iparraldeko ikastolen-egutegiak salgai.

Iparraldeko ikastolek, egin ohi duten bezala, 2019ko egutegia (**Seaska**) salgai jarri dute. Erosi nahi izanez gero, **Ikastolako eta Haur Eskolako idazkaritzetan** egongo dira **eskuragarri**. Ale bakoitzaren salneurria **4 eurokoa** da.

12.-Errigorako saski baten zozketa.

Ikastoletako sare sozialetan, facebook eta twitter, lagunak direnen artean, Errigorako otarra zozketatuko da.

OHARRAK ETAPAKA



1.-Psikomotritzitate saioak.

Hitz-Aho guraso elkarteak psikomotritzitate saioak antolatu ditu 2 eta 5 urte bitarteko haurrentzat.

NOIZ: ostegunetan 16:45etik 17:45era, urtarriletik maiatzera.

NON: Agerialde eraikineko psikomotritzitate gelan.

ADITUA: Saioa Aizpurua.

IZEN-EMATEA: hitzaho@udarregi.eus helbidera idatziz abenduaren 7a bitarte.

KUOTA: 70 euro (taldea osatu ostean, ordainketa nola egin esaten duen email bat jasoko duzue).



1.-Abenduaren 3ko hamaiketakoa.

Abenduaren 3an euskararen eguna ospatuko dugu eta, hamaiketako bezala, gaztaina-jana egitea pentsatu dugu. Honen prestaketarako familien laguntza behar dugu. Animatzen zaretenok, zuen seme-alaben irakasleari jakinarazi.

2.-Psikomotritzitate saioak.

Hitz-Aho guraso elkarteak psikomotritzitate saioak antolatu ditu 2 eta 5 urte bitarteko haurrentzat.


NOIZ: ostegunetan 16:45etik 17:45era, urtarriletik maiatzera.

NON: Agerialde eraikineko psikomotritzitate gelan.

ADITUA: Saioa Aizpurua.

IZEN-EMATEA: hitzaho@udarregi.eus helbidera idatziz abenduaren 7a bitarte.

KUOTA: 70 euro (taldea osatu ostean, ordainketa nola egin esaten duen email bat jasoko duzue).



1.-Robotika LH 4ko, LH 5eko eta LH 6ko ikasleei zuzenduta.

Ikastolen elkarteko aisialdi-taldeak 4., 5. eta 6. mailako ikasleei zuzendutako udaleku irekiak antolatu ditu Gabonetako oporretan.

Udaleku ireki horren **helburuak** honakoak dira: ondo pasatzea, pentsaera konputazionala lantzea, teknologia berriak euskaraz bitzeko aukera ematea, teknologia berrien bidez sormena sustatzea, interes bereko gazteen arteko komunikazioa sustatu eta programazioa eta robotikaren mundua ezagutzea.

Jarduerak: blokeko programazioaren oinarriak ezagutu.

Hardwarearekin lan egin.

Oinarrizko zirkuitu elektronikoen ezagutzak landu.

Taldeka, proiektu bat garatu (proiektua gazteek aukeratuko duke)

Proiektuen aurkezpena egin.

*Gutxieneko taldea 10eko izango da.

Noiz: abenduaren 26tik 28ra edo urtarrilaren 2tik 4ra, goizeko 9:00etatik 13:00era

Non: ikastolan.

Izen-ematea: abenduaren 12a bitarte ikastolako idazkaritzan.

Prezioa: ikastolako ikasleentzat 70€.

2.-Eskia denontzat 2019.

Ohitura denez, Ikastolak urtero bezala, neguko giroa aprobetxatuz, LH 5. Mailatik gorako ikasleei zuzenduriko eski-aldia antolatu du.

MODALITATEA: ESKI ALPINOA.

DATA: Urtarrila 26 (Parte-hartzaileen izen-emate kopurua handia bada, bigarren egun bat jarri daiteke, urtarrilak 12an. Bi txandetan egiten bada, DBHko ikasleak egun batean joango dira eta LHko ikasle guztiak beste batean)

SALNEURRIA: 63 Euro

ORDAINKETA: Rural Kutxan, ES80 3008 0259 1921 5462 6820 (Kontzeptuan ikaslearen izen abizenak jarri)

Aipatu prezioan honako zerbitzuak barneratzen dira:

- Autobusez bidaia.
- Ekipamentuaren alokairua: Botak, bastoiak, kaskoa, eski edo snow taulak (aukeraren arabera).
- Arduradunak ikasleak zaintzeko eta 2 orduko eski ikastaroa euskeraz.
- Eguneko eski aseguruua.
- Eguneko forfaita


PROGRAMA: irteera larunbatean goizeko 5:30 inguruan eta itzulera larunbatean, 20:00ak inguruan.

OHARRA: Eski estazioan bertan gertaturiko istripuak aseguraturik daude, estaziotik kanpo gertaturikoak Gizarte Asegurantzatik bideratuko dira. Bestalde, izen emate hau egiteak komunak diren gastuei aurre egitea suposatzen du, nahiz eta ondoren atzera egin (autobusaren gastuak, monitoreanak, etab.).

Bilera bat egingo da dena zehazteko eta zalantzak argitzeko. Izena eman dutenei abisatuko zaie bileraren berri.

Ordainketa: izen ematearekin batera 63€ ordaindu beharko dira eta bankuko ziuertagiria aurkeztu beharko da orri honekin batera.

Interesatuak, albiste buletinaren bukaeran dagoen izen-emate orria **bete** eta idazkaritzan **entregatu abenduaren 5a baino lehen**. Ingresuaren ziuertagiria orri honekin batera aurkeztu beharko da.



1.-DBH 3. eta 4. mailako ikasleei zuzenduta.

DBHko 3. eta 4. mailako ikasleak 2019ko udan Erresuma Batuan, Irlandan eta Frantzia hiru asteko egonaldia eta ikastaroak egiteko deialdia argitaratu da.

Inork eskabidearen inguruko informazio gehiago nahiko balu, idazkaritzan jaso dezake, edota www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus web-orriaren bidez.

Eskaera aurkezteko **epea abenduaren 16ra** arte izango da.

2.-Eskia denontzat 2019.

Ohitura denez, Ikastolak urtero bezala, neguko giroa aprobetxatuz, LH 5. Mailatik gorako ikasleei zuzenduriko eski-aldia antolatu du.

MODALITATEA: ESKI ALPINOA.

DATA: Urtarrila 26 (Parte-hartzaileen izen-emate kopurua handia bada, bigarren egun bat jarri daiteke, urtarrilak 12an. Bi txandetan egiten bada, DBHko ikasleak egun batean joango dira eta LHko ikasle guztiak beste batean)

SALNEURRIA: 63 Euro

ORDAINKETA: Rural Kutxan, ES80 3008 0259 1921 5462 6820 (Kontzeptuan ikaslearen izen abizenak jarri)

Aipatu prezioan honako zerbitzuak barneratzen dira:

- *Autobusez bidaia.*
- *Ekipamentuaren alokairua: Botak, bastoiak, kaskoa, eski edo snow taulak (aukeraren arabera).*
- *Arduradunak ikasleak zaintzeko eta 2 orduko eski ikastaroa euskaraz.*
- *Eguneko eski aseguruua.*
- *Eguneko forfaita*


PROGRAMA: *irteera larunbatean goizeko 5:30 inguruan eta itzulera egunean bertan, 20:00ak aldera.*

OHARRA: Eski estazioan bertan gertaturiko istripuak aseguraturik daude, estaziotik kanpo gertaturikoak Gizarte Asegurantzatik bideratuko dira. Bestalde, izen emate hau egiteak komunak diren gastuei aurre egitea suposatzen du, nahiz eta ondoren atzera egin (autobusaren gastuak, monitoreenak, etab.).

Aurrerago, bilera bat egingo da dena zehazteko eta zalantzak argitzeko. Izena eman dutenei abisatuko zaie bileraren berri.

Ordainketa: **Izen ematearekin batera 63€ ordaindu beharko dira eta bankuko ziurtagiria aurkeztu beharko da orri honekin batera.**

Interesatuak **datuak bete** eta idazkaritzan **entregatu abenduaren 5a baino lehen**. Ingresuaren ziurtagiria orri honekin batera aurkeztu beharko da.



IZEN-ABIZENAK: _____

MAILA: _____ Eskia Snow-a

Aita, ama edo tutorearen sinadura: